



Azpeitiko Udala

AZPEITIKO UDALEKO KULTURA / FESTAK /
HEZKUNTZA SAILA - BIKOIZTUA JASO DUT.

Azpeitia, 2026... (e)ko... a.

**AZPEITIKO UDALAREN ETA ERNIARRAITZ BERTSOZALE ELKARTEAREN
ARTEKO HITZARMENA 2025 EKITALDIAN BERTSO ESKOLA ETA URTEKO
JARDUERAK BIDERATZEKO (2025DZKT0007 / 25-18D)**

BILDURIK

Alde batetik **NAGORE ALKORTA ELORZA**, NAN 72.471.832-M duena, Azpeitiko Udalaren Alkate-Udalburua, Udalbatza Osoak 2023ko ekainaren 17an hartutako erabakiaren arabera egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua.

Bestetik **HARITZ ETXEBERRIA BEREZIARTUA**, NAN 72.467.332-J duena, Erniarraitz Bertsozale Elkartearen Lehendakaria, erakundearen estatutuen arabera egintza honetan parte hartzeko ahalmena hartua.

Bi aldeek aitortzen diote elkarri agiri hau izenpetzeko eta jarduteko behar den gaitasun juridikoa eta honakoak azaltzen dituzte:

AURREKARIAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ez ezik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua ere Azpeitiko Udalarik kultura eta kultura-jarduerak antolatzeke eta sustatzeko eskumen propioa aitortzen dio. Kultura garatzeko, sustatzeko eta zabaltzeko Udalak helburu, estrategia eta ekintzak definituko ditu, eta horien kudeaketan bere bitartekoak erabiltzeaz gain beste erakunde batzuekin ere elkarlaneari ahal izango da, modu koordinatu eta homogeenan.

Laguntza hau bat dator Udalak 2023ko otsailaren 7ean onartu zuen Azpeitiko Udalaren 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoarekin (GAOn 2023/03/01ean argitaratua), III. Eranskina: kulturaren arloko jarduerak dinamizatzeko eta sustatzeko dirulaguntzak, eta honen barruan honako laguntza lerroa dago: gure lurraldeko kultura-tradizioei lotutako kolektiboekin lankidetzan aritzeko programa.

Dirulaguntza lerro honen helburu estrategikoa Azpeitian gure tradizio, ohitura eta bizimodu propioen ikerketa, sorkuntza eta erakusketa sustatzea eta bultzatzea, gure udalerrian eta lurraldean tradizio luzea duten kolektiboek sustatutako programen bidez. Bertsolariaren artearen ikerketa, sorkuntza eta erakusketa sustatzea eta bultzatzea lortu nahi da, udalerriko biztanleek kultura-ondare horretaz gozatzeko aukera izan dezaten. Erniarraitz Bertsozale Elkartearen ohiko funtzionamenduari eta jarduerari ekonomikoki laguntzeko xedea du dirulaguntza honek.

2017. urtetik aurrera Erniarraitz Bertsozale Elkarteak Azpeitia, Azkoitia eta Errezilen Bertso Eskola bermatu nahi du eta urtean zehar hainbat bertsozaletasunari loturiko ekitaldiak antolatu ditu. Ekimen hauekin bailara honetako bertsozaletasuna indartu nahi du eta bide batez egitasmo honetan hain garrantzitsua den bertso transmisioa landuko du.

Erniarraitz Bertsozale Elkartearen izenean Haritz Etxeberria Bereziartuak 2025eko



Azpeitiko Udala

ekitaldian bertso eskola proiekturako eta urtean zehar bideratuko diren ekintzak aurrera eramateko dirulaguntza eskaera egin du.

Udalaren Kultura, Euskara eta Parte hartze batzordeak 2025eko apirilaren 3an egindako bileran Erniarraitz Bertsozale Elkarteak aurkeztutako egitasmoa baloratu zuen, eta aldeko irizpena eman zuen aurrekontuan jasotako dirulaguntza zuzena emateko, kontuan izanik egitasmoaren helburuak bat datozela gure tradizio, ohitura eta bizimodu propioen ikerketa, sorkuntza eta erakusketa sustatu eta bultzatzearekin.

Era berean, dirulaguntza aurreikusita dago Udalaren 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Betearazpen Oinarrietan.

Egitasmoak aurretiako finantzaketa bermatu behar duenez, dirulaguntzaren ordainketa aurreratua egingo da. Elkarte onuradunak beharrezkoa izango du 2026ko urtarrilaren 31a baino lehenago jasotako funtsa dirulaguntza emateko oinarritzat balio izan duen xederako destinatua dela egiaztatzea Udalaren aurrean.

Horiek horrela, parte-hartzaileek, duten ordezkartzaren arabera, bere burua lotzeko gaitasuna dute eta hori aitortzen diote elkarri; hortaz, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28. artikulua kontuan izanik, hurrengo lankidetzeta-hitzarmena gauzatzeko, hauek erabaki dituzte:

1. HELBURUA.

Hitzarmenaren helburua da Erniarraitz Bertsozale Elkarteari 7.000€ko laguntza izenduna ematea, 2025. ekitaldian bertso eskola proiekturako eta urtean zehar bideratuko diren ekintzak aurrera eramateko.

Egitasmoa hitzarmenaren **Eranskin** bezala jaso da; bertan zehaztu dira aurtengo ekitaldian emango diren jarduketak.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA.

Dirulaguntza hau arautuko dute, errege dekretu honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean bereziki xedatutakoak ez ezik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako hura garatzen duen Erregelamenduan aurreikusitakoak ere, publizitate- eta lehia-printzipioei eragiten dienean izan ezik, bai eta, modu osagarrian, urriaren 1eko Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015 Legean (urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) aurreikusitakoa ere.

3. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.

Dirulaguntza hau zuzenean emango da, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera. Dirulaguntza honen oinarri arautzaileak hitzarmen honetan zehazten dira, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 28.2 artikuluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 67. artikuluan xedatutakoa betez.

Udalaren Kultura Saila izango da laguntzaren organo-kudeatzailea.



Azpeitiko Udala

Dirulaguntza honen publizitatea Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean egingo da.

4. GAUZATZE ALDIA

Diruz laguntzen diren jarduerako egiteko aldia 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte luzatuko da.

5. LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA FINANTZAKETA

Dirulaguntza Udalaren 2025. ekitaldirako gastu-aurrekontuaren kontura finantzatuko da, 7.000 euroko zenbatekoarekin, 1.0401.481.334.00.01 2025 Transferentzia arruntak Kultura Batzordea aurrekontu-aplikazioaren kargura.

6. LAGUNTZA ORDAINTZEKO MODUA

Onuraduna izateko baldintzak: Laguntzaren onuraduna izango den ERNIARRAITZ BERTSOZALE ELKARTEAK azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan ezarritako baldintzak bete ditu dirulaguntza kobratzeko.

Ordainketa aurreratua: Dirulaguntzaren ordainketa une bakarrean eta modu aurreratuan egingo da, dirulaguntzaren helburu diren jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa baita.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 42.2.d) artikuluan aurreikusitakoaren babesean, erakunde onuraduna bermea eratzetik salbuetsita geratuko da.

7. BESTE DIRULAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU-SARRERA ETA BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA.

Diru-laguntza hau bateragarria da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Erakunde onuradunak aurreko paragrafoan aipatutako baliabideak lortu dituela jakinarazi beharko du. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolana ere, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14.d) artikuluan ezarritakoaren arabera jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Jarduerak, dirulaguntza honekin finantzatzeaz gain, funts propioekin edo beste diru-laguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, justifikazioan egiaztatu beharko da funts horien zenbatekoa, jatorria eta erabilera diruz lagundutako jardueretan, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30.4 artikulua arabera.

Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.



Azpeitiko Udala

8. JUSTIFIKAZIOA

Diruz lagundutako jardueren kontura egindako gastuak justifikatzeko epea hilabetekoa izango da, gauzatze-aldia amaitzen denetik aurrera. Hau da, 2026ko urtarrilaren 31a.

Dirulaguntzaren gastua justifikatzeko, erakunde onuradunak gastu-egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu **justifikazio-kontu erraztuaren modalitatean**, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren 75. artikulua arabera.

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 31. artikulua ezarritakoaren arabera, 2023ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egindako gastuak egiaztatu ahal izango dira.

Justifikazio-kontuak honako informazioa eman beharko du:

a) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta **lortutako emaitzak** adierazita. Herritarren parte hartze maila zehaztu beharko da. Emakume eta gizonen berdintasunari buruzko adierazlearen informazioa eman behar da: jardueran parte hartu dutenen datuak generoa kontuan hartuz.

b) Jardueraren gastu eta inbertsioen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data adierazita. Dirulaguntza aurrekontu estimatu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrerara edo dirulaguntza batzuen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

d) Hala badagokio, itzulketaren ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko gerakinen kasuan, bai eta horietatik eratorritako interesen kasuan ere.

3. Dirulaguntza ematen duen organoak, oinarri arautzaileetan adosten diren laginketa-tekniken bidez, egokitzat jotzen dituen egiaztagiriak ikuskatuko ditu, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela arrazoiz frogatu ahal izateko. Horretarako, hautatutako gastuen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango dio onuradunari.

Dirulaguntza ematen duen organoak egoki iritzitako egiaztagiriak eskatuko dizkio onuradunari, dirulaguntza behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko.

Erakunde onuradunak bere gain hartzen du Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikulua dirulaguntza publikoak justifikatzeari buruz ezartzen dituen betebeharrak.

9. GASTU HAUTAGARRIAK

Dirulaguntza honako kostu mota hauek finantzatzeko bakarrik erabiliko da:

A) Zuzeneko kostuak: Bertso eskola proiektua eta 2025eko ekitaldian bideratuko diren ekintzak aurrera eramateko egindako gastuak.



Azpeitiko Udala

Erakunde onuradunak diru-laguntzaren xede den jarduera azpikontratatu ahal izango du, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29.2 artikuluan ezarritako mugen barruan.

10. ALDAKETAK

Dirulaguntza ematea eragin duten inguruabarrak aldatuz gero, onuradunak hasieran aurreikusita zeuden jarduerak zabaltzeko, kentzeko edo aldatzeko eskatu ahal izango du, arrazoiak azalduta.

Aldaketek ezin dute inola ere diru-laguntzaren zenbatekoa handitu.

11. ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Dirulaguntzaren erakunde onuradunak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko ditu, eta, bereziki, betebegar hauek izango ditu:

A) Helburua betetzea, jarduera egitea eta dirulaguntza emateko oinarri den portaera hitzarmen honetan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan, baldintzetan eta epean hartzea, dagozkion justifikazioak aurkeztuz eta Kultura Sailak jarduketak behar bezala ebaluatzeko behar diren datuak emanaz.

B) Organo eskudunak eskatutako gastuak justifikatzea fakturekin eta merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako dokumentuekin.

C) Diruz lagundutako jardueretarako funtsen aplikazioaren kontrol- eta jarraipen-jarduketak onartzea, dokumentuak egiaztatuz eta Kultura Sailak finantzatutako jardueren amaierako ebaluazioa eginez, bai eta Kontuhartzaitzak eta Kontu Auzitegiak funtsen finantza-kontrola egitea ere.

D) Dirulaguntza publikoak kudeatzeko prozedurak modernizatzen laguntzea, Udalak zehaztutako tresna informatikoak erabiliz.

E) Dirulaguntza jasotzen duten proiektuen eduki nagusia osatzen duten jarduerak kudeatzea eta zuzenean egitea.

F) Datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoa betetzea.

Alderdiek adierazten dute ezagutzen dituztela Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoari buruzko (3/2018) Lege Organikoari eta Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduari buruzko xedapenak, eta konpromisoa hartzen dute lege horretan aurreikusitako betekizunak betetzeko, hitzarmen hau dela-eta dauzkaten erabiltzaileen datuei dagokienez.

G) Dirulaguntzaren jatorria behar bezala identifikatzea eta jardueraren finantzaketaren izaera publikoa behar bezala zabaltzea. Horretarako, diruz lagundutako jarduera zabaltzeko erabiltzen den materialean, proiektuaren ondorio izan daitezkeen iragarkiak, kartelak eta argitalpenak txertatu beharko ditu, bai eta gauzatutako jardueren inguruko esku-hartze publikoetan



Azpeitiko Udala

ere.

H) Bere webgunean argi eta garbi adieraztea diruz lagundutako jarduerak Udalaren dirulaguntzen bidez gauzatzeko direla.

12. EZ BETETZEAK ETA ITZULKETAK

Bidezkoa izango da jasotako zenbatekoak eta, hala badagokio, diruz lagundutako jarduerak sortutako diru-sarrerak eta dirulaguntzagatik sortutako interesak itzultzea, bai eta dagokion berandutze-interesa eskatzea ere, dirulaguntza ordaintzen denetik bidezkoa den egunera arte.

13. ZEHAPEN-ARAUBIDEA

Diruz lagundutako erakundeak diru-laguntzen arloan egin ditzakeen arau-hausteak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren IV. tituluan ezarritakoaren arabera mailakatu eta zehatuko dira.

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen direnek honelako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

Azpeitian, 2025eko abenduaren 23an

Nagore Alkorta Elorza
Azpeitiko Udala

Haritz Etxeberria Bereziartua
Ernialarritz Bertsotzale Elkartearen
lehendakaria